



IFZ: P3147827D

**MALERREKAKO ZERBITZU  
OROKORREN MANKOMUNITATEKO  
ASAMBLADAK 2013KO UZTAILAREN  
9AN EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohikoa.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2013.07.09.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Mankomunitateko batzar aretoan.

**Bertaratuak:**

**-LEHENDAKARIA:**

- Alberto San Miguel Mindeguia jn. (Oitz).

**- LEHENDAKARIORDEA:**

- Arrosatxo Ibarra Ibarra. (Elgorriaga).

**-ORDEZKARIAK:**

- Ernesto Dominguez Olea jna. (Zubieta).  
- Maria Jose Mitxelena Otegi and. (Sunbilla).  
- Amets Inda Gorriaran and. (Sunbilla).  
- Patxi Mariezkurrena Descarga jna. (Eratsun).  
- Gloria Aguerri Asiain and.  
(Doneztebe/Santesteban).  
- Ana Etxeberria Sistiaga and.  
(Doneztebe/Santesteban).  
- Jose Luis Legarra Iriarte jna.  
(Doneztebe/Santesteban).  
- Eduardo Oyarzabal Micheo jna.  
(Doneztebe/Santesteban).  
- Iñaki Juanena Santesteban jna. (Urrotz).  
- Mikel Iriarte Antxorena jna (Donataria).  
- Maria Jose Bereau Baleztena and. (Ituren).  
- Mikel Gereka Zelaia jna. (Ituren).  
- Josune Ibarra Santxotena and. (Bertizarana).  
- Idoia Hernandorena Amestoy and.  
(Bertizarana).

**- BESTEAK**

**ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA POR LA  
ASAMBLEA DE LA MANCOMUNIDAD DE  
SERVICIOS GENERALES DE MALERREKA  
EL DÍA 9 DE JULIO DE 2013.**

**Organo:** Asamblea.  
**Sesión:** Ordinaria.  
**Convocatoria:** Primera.  
**Día:** 09.07.2013.  
**Hora:** 19:00 horas de la tarde.  
**Lugar:** Locales de la Mancomunidad de Malerreka.

**Asistentes:**

**-PRESIDENTE:**

- Alberto San Miguel Mindeguia (Oitz).

**- VICEPRESIDENTE:**

- Arrosatxo Ibarra Ibarra (Elgorriaga).

**-REPRESENTANTES:**

- D. Ernesto Dominguez Olea (Zubieta).  
- Dña. Amets Inda Gorriaran (Sunbilla).  
- Dña. Maria Jose Mitxelena Otegi (Sunbilla).  
- D. Patxi Mariezkurrena Descarga (Eratsun).  
- Dña. Gloria Aguerri Asiain  
(Doneztebe/Santesteban).  
- Dña. Ana Etxeberria Sistiaga  
(Doneztebe/Santesteban).  
- D. Jose Luis Legarra Iriarte.  
(Doneztebe/Santesteban).  
- D. Eduardo Oyarzabal Micheo  
(Doneztebe/Santesteban).  
- D. Iñaki Juanena Santesteban (Urrotz).  
- D. Mikel Iriarte Antxorena (Donataria).  
- Dña. M<sup>a</sup> Jose Bereau Baleztena (Ituren).  
- D. Mikel Gereka Zelaia (Ituren).  
- Dña. Josune Ibarra Santxotena (Bertizarana).  
- Dña. Idoia Hernandorena Amestoy (Bertizarana).

**- OTROS:**

**Bertaratu ez direnak:**

- Jacinto Dominguez San Nazario jna. (Saldias).
- Patxi Otxandorena Juanotena jna. (Beintza-Labaien).
- Peio Zestau Juantorena jna. (Ezkurra).

**Idazkaria:** Jon Etxague Goia jn.

**Aztergaiak:**

1. Aurreko akta onartzea
2. ZABORRAK
  - a) Konposterren erosketa
  - b) Zabor Partzuergoarekin lankidetzaren hitzarmena.
3. EUSKARA.
  - a) Euskara zerbitzuaren diru-laguntza zuzenak.
    - Etxetik Plazara
  - b) Malerreko Kultur ibilbideak.
4. EITBren sintonizazioa.
5. Malerreko Eguna 2013.
6. Malerreko Itzulia proiektua.
7. Mankomunitateko langileen eskaera: lan kontratudun langile finkoen funtzionarizazio prozesua.
8. Toki entitateen maparen erreforma.
9. Lehendakariaren ebazpenak.
10. Eskaerak eta galderak.

**No asisten:**

- D. Jacinto Dominguez San Nazario (Saldias).
- D. Patxi Otxandorena Juanotena (Beintza-Labaien).
- D. Peio Zestau Juantorena (Ezkurra).

**Secretario:** D. Jon Etxague Goia

**Asuntos:**

1. Aprobación acta anterior.
2. RESIDUOS
  - a) Compra de composteras.
  - b) Convenio de colaboración con el Consorcio de Residuos.
3. EUSKARA
  - c) Subvenciones directas del servicio de Euskara
    - Etxetik Plazara
  - d) Malerreko Kultur ibilbideak.
4. Sintonización EITB.
5. Malerreko Eguna 2013.
6. Proyecto Malerreko Itzulia.
7. A petición de los empleados de la Mancomunidad: proceso de funcionarización de los contratados laborales fijos.
8. Reformas del mapa local.
9. Resoluciones del Presidente.
10. Ruegos y preguntas.

**Arratsaldeko 19:30ak izanik bilerari hasiera eman zaio.**

**1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Ikusirik 2013ko maiatzaren 14an egindako bileraren akta, aho batez, ONARTU DUTE.

**2. HONDAKINAK**

**a) Konposterren erosketa.**

Mankomunitateko idazkariak PIGRNak xedatuakoaren ondorioz materia organikoa biltzeko mankomunitateak onarturiko plana martxan jartzeko prozesua azaldu du. Horretarako mankomunitateak beharrezkoak diren konpostontziak erosi beharko ditu, eta horren ondoren Nafarroako Hondakinak Tratatzeke Partzuergoaren eta Cederna Garalurren diru-laguntza jaso.

Hau ikusirik, Hondakinaren Batzordearen aldeko irizpena jasorik, aho batez, ERABAKI DUTE:

*Siendo las 19:30 de la tarde se abre la sesión.*

**1. APROBACIÓN ACTA ANTERIOR.**

*Visto el acta de la sesión celebrada el 14 de mayo de 2013, por unanimidad, SE APRUEBA.*

**2. RESIDUOS**

**a) Compra de composteras.**

*El secretario de la Mancomunidad da cuenta del proceso de implantación de los planes de recogida de la materia orgánica aprobados como consecuencia de lo regulado en el PIGRN. Para su implantación va a ser necesario que la Mancomunidad licite las unidades de compostación necesarias para a continuación cobrar las subvenciones de Cederna Garalur y el Consorcio para el Tratamiento de Residuos de Navarra.*

*Visto lo cual, informado favorablemente por la Comisión de Residuos, por unanimidad, SE ACUERDA:*

*1.- Aprobar el expediente de contratación,*

1.- Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitaterako konpost-ontziak publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez erosteko espedientea onartzea.

2.- Publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitaterako konpost-ontziak erosteko oinarriko baldintzen dokumentua onartzea.

**b) Zabor Partzuergoarekin lankidetzaren hitzarmena.**

Materia organikoa biltzeko sistemak martxan jartzeko asmoarekin, Malerrekako Mankomunitatearen esparruan hiri hondakinak biltzeko sistemaren lagungarri bezala etxeko eta auzoko konposta martxan jartzearen alde egin da.

konpostai sistemak finantzatzeko Nafarroako Hondakinak Tratatzeko Partzuergoaren arrazoia, Partzuergoaren parte diren entitateek hondakinak murriztu eta hauen produkzioaren prebentzioan lan egitea sustatzean datza.

Mankomunitateak garatuko duen programa honi Partzuergoak emango dion laguntza formalizatu eta arautzeko tresnarik egokiena Mankomunitatea eta Partzuergoaren artean konpost-aiaren sendotzea eta honen harira materia organikoa biltzeko planen babesa helburu duen lankidetzaren hitzarmena sinatzea izango da.

Hori dela eta eta hitzarmenaren edukia ikusi eta azterturik, aho batez, ERABAKI DUTE:

1.- Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 70. artikuluan xedatutako oinarrituz, konpost-ontziak zabaltzeko diseinatutako planak martxan jartzeko finantziario arautzeko Nafarroako Hondakinak Tratatzeko Partzuergoarekin Lankidetzaren hitzarmena onestea.

*mediante procedimiento negociado sin publicidad comunitaria, para la adquisición a título oneroso de unidades de compostación para la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka.*

*2.- Aprobar el documento de condiciones esenciales para el suministro de unidades de compostación para la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka.*

**b) Convenio de Colaboración con el Consorcio de Residuos**

*En pos de la materialización de las previsiones de los planes de actuación orientadas a la consolidación de sistemas de recogida de materia orgánica, como sistema complementario de la gestión de los residuos urbanos, en el ámbito de actuación de la Mancomunidad de Malerreka se ha optado principalmente por el compostaje domiciliario y comunitario.*

*La financiación con los recursos del Consorcio para el Tratamiento de Residuos de Navarra de las actividades programadas en las entidades consorciadas en orden a la consolidación de los sistemas de compostaje, queda justificada en el sentido de afectar y vincular aquellos en función de las políticas de reducción y prevención en la generación de residuos.*

*La formalización de un convenio de colaboración, previa a la aprobación del mismo por la Asamblea de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka constituye el instrumento necesario para materializar la financiación por el Consorcio del programa desarrollado por la Mancomunidad, orientada a la pretendida consolidación de la actividad de compostaje y con ello de los planes para la recogida de materia orgánica.*

*Por lo tanto, visto y analizado el contenido del convenio, por unanimidad, SE ACUERDA:*

*1.- Al amparo de lo dispuesto en el artículo 70 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, aprobar el convenio de colaboración con el Consorcio para el Tratamiento de Residuos Urbanos de Navarra para materializar la financiación por el Consorcio de los programas desarrollados por las entidades consorciadas orientados a la consolidación de la actividad de compostaje.*

### 3. EUSKARA

#### a) Euskara zerbitzuko diru-laguntza zuzenak.

##### ▪ Etxetik Plazara.

Ikusirik Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko estatutuen 5.3 artikulua, mankomunitatearen xedea euskararen egoera diglosikoa zuzentzea eta berau normalizatzea dela dioena.

Ikusirik Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko 2013ko aurrekontuak Etxetik Plazara egitasmoa sustatzeko 2.900,00 € aurreikusten dituela (1 4511 46202 kontu-saila).

Ikusirik Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak Etxetik Plazara argitalpenak Malerrekako herritarren artean euskaraz irakurtzeko gaitasuna sustatzeko eta ondorioz, gure eskualdean euskaldunen hizkuntza gaitasuna hobetzeko egiten duen lana ezinbertzekotzat jotzen duela. Eta jakinda Etxetik Plazara argitalpena dela gure eskualdean zerbitzu hori eskaintzen duen argitalpen bakarra, 6/1990 Foru Legearen 221. artikuluan eta 38/2003 Legearen 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aho batez, ERABAKI DUTE:

1.- Etxetik Plazara argitalpenari 2.900,00 euroko diru laguntza ematea.

2.- Diru laguntza honen lehenengo erdia ordaintzeko (1.450,00 €) Etxetik Plazara egitasmoaren argitaratzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du, 2013ko uztailearen 31a baino lehen:

- a) Eskabide ofiziala behar bezala beteta. Bertan azaldu beharko dute 2013ko diru-sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza eta xehatua.
- b) Identifikazio fiskalaren txartelaren fotokopia.
- c) Eskabidea baloratzeko aurkeztu nahi den gainerako dokumentazioa.

Dokumentazioa Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko bulegoetan (Zazpigarutze auzoa 2, behe, 31740 Doneztebe/Santesteban) aurkeztu beharko da. Hori dena zuzenean edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz egin ahal izango da.

### 3. EUSKARA

#### a) Subvenciones directas del Servicio de Euskara.

##### ▪ Etxetik Plazara.

*Visto que según el artículo 5.3 de los estatutos de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka uno de los objetivos de esta entidad es corregir la situación de diglosis que sufre el euskera y el trabajo en pos de su normalización.*

*Visto que el Presupuesto del año 2013 de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka recoge una partida presupuestaria de 2.900,0 euros como subvención nominativa para el proyecto Etxetik Plazara (partida 1 4511 46202).*

*Visto que La Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka considera imprescindible la labor de fomento de la capacidad de comunicación en euskera de la habitantes de la zona. Y conocedores de que la publicación Etxetik Plazara es la única publicación de la zona que realiza dicha labor, de acuerdo a los establecido en los artículos 221 de la Ley Foral 6/1999 y 28 de la Ley 38/2003, por unanimidad, SE ACUERDA:*

*1.- Conceder a la publicación Etxetik Plazara una subvención de 2.900,00€.*

*2.- Para abonar la primera mitad de esta cantidad (1.450,00€), la entidad editora del proyecto Etxetik Plazara deberá presentar antes del 31 de julio de 2013 la a continuación reseñada documentación:*

- a) *La instancia oficial adecuadamente cumplimentada. En ella constará el presupuesto detallado de los ingresos y gastos previstos para el ejercicio 2013.*
- b) *Fotocopia de la tarjeta de identificación fiscal.*
- c) *Toda documentación complementaria que quieran aportar para complementar la solicitud.*

*La documentación deberá ser presentada en las oficinas de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka (barrio Zazpigarutze nº 2, bajo, 31740 Doneztebe/Santesteban). La documentación podrá ser presentada asimismo por cualquier de los canales establecidos en la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento*

Dokumentazioa aurkeztu eta azterturik, lehenengo zatia lehendakariaren ebazpen bidez ordainduko da.

*Administrativo Común. Presentada y analizada la documentación requerida, la cantidad se abonará por Resolución del Presidente de la Mancomunidad.*

3.- Bigarren zatia (1.450,00 €) urtearen bukaeran ordainduko da Lehendakariaren ebazpen bidez. Horretarako Etxetik Plazararen argitaratzaileak aipatu dokumentazio hau aurkeztu beharko du, 2013ko abenduaren 16a baino lehen:

*3.- La segunda mitad de importe concedido (1.450,00€) se abonará a finales de año por Resolución del Presidente de la Mancomunidad. Para ello la editora de Etxetik Plazara deberá presentar la documentación reseñada a continuación antes del 16 de diciembre de 2013:*

- a) Urte osoko gastuak justifikatzen dituzten agiriak. Nahikoa izanen da jasoko den diru laguntzaren zenbatekoa (2.900,00 €) justifikatzen duten gastuen agiriak aurkeztea.
- b) Diruz lagundutako programa edo jardueraren behin betiko exekuzio-aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak), ahalik eta zehatzena, entitate onuraduna ordezkatzeko lege-ahalmena duen pertsona fisikoak izenpetutako zinpeko aitortpen bidez.
- c) 2013ko ale idatzi guztien lagina. Ez da beharrezkoa izango argitaratu ahala Mankomunitatera bidali badira.

- a) Documentos justificativos de los gastos del ejercicio. Será suficiente presentar los justificantes hasta alcanzar el importe concedido (2.900,00€).*
- b) La información detallada de la ejecución del presupuesto de la entidad beneficiaria (gastos e ingresos), firmada mediante declaración responsable del representante legal de la entidad beneficiaria de la subvención.*
- c) Muestra de todos los ejemplares publicados en el año 2013. No será necesario si ya se han remitido a la Mancomunidad durante el ejercicio.*

#### **b) Malerrekako Kultur Ibilbideak.**

#### **b) Malerrekako Kultur Ibilbideak.**

Euskara Batzordeko Lehendakari Patxi Mariezkurrenak eta Ernesto Dominguez Zubietako Zinegotziak “Malerrekako Kultur Ibilbideak” proiektua aurkeztu dute. Proposamen honen arabera, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta Malerrekako Udalek elkarlanean euskarazko kultur jarduera programa bat antolatuko dute.

*El Presidente de la Comisión de Euskara Patxi Mariezkurrena Descarga, y el Concejal de Zubieta Ernesto Dominguez presentan el proyecto “Malerrekako Kultur Ibilbideak”. Según dicha propuesta el Servicio de Euskera de la Mancomunidad y los Ayuntamientos de Malerreka organizarán de forma conjunta un programa de actividades culturales en Euskara.*

Gaia eztabaidaturik eta Euskara Batzordearen oniritziarekin, aho batez, ERABAKI DUTE:

*Discutido el tema, y con el visto bueno de la Comisión de Euskara, por unanimidad, SE ACUERDA:*

1.- “Malerrekako Kultur Ibilbideak” proiektua onestea.

*1.- Aprobar el proyecto “Malerrekako Kultur Ibilbideak”.*

#### **4. EITBren SINTONIZAZIOA.**

#### **4. SINTONIZACIÓN DE EITB**

Idazkariak EITBren sintonizaziorako beharrezkoa den azpiegitura jartzeko bere garaian egin ziren tramiteak azaldu ditu. Momentu honetan, Mankomunitatearen beharrei egokitutako (prezio baxuagoa eta gastuak banatzeko modu desberdina) aurrekontua jasotzearen zain dago mankomunitatea.

*El Secretario informa de las gestiones que se realizaron en su día para la instalación de la infraestructura necesaria para la sintonización de EITB. Actualmente se está pendiente de recibir un presupuesto adecuado a las necesidades manifestadas por la Mancomunidad de Malerreka (disminución del precio y modificación del modo de reparto del coste).*

Gaia eztabaidaturik, aho batez, ERABAKI DUTE:

1.- Malerrekan EITB sintonizatzeko beharrezkoa den azpiegitura jartzeko bigarren aurrekontu bat eskatzea.

2.- Telebista katearen sintonizaziorako soluzio tekniko bat eman diezagun EITBko arduradunen batekin kontaktuan jartzea.

Josune Ibarrek dioenez Bertizarano Telebista uinak Ezkurran instalatutako antenei esker jasotzen dituztela kontrastatu dute. Antena hauen mantentze gastuak Ezkurrako Udalak ordaintzen ditu.

Patxi Mariezkurrenak Eratsun eta Ezkurrako idazkariarekin hitz egingo duela dio, tartean dauden Udalekin bilera bat egin dadin.

## **5. MALERREKAKO EGUNA 2013**

Idazkariak 2013ko Malerrekako Egunaren kontuak aurkeztu ditu. Printzipioz Malerrekako Egunerako dirua lortzeko egindako jardueretatik lortutako dirua (zozketa, mus txapelketa, etab.) nahikoa izango da sortutako gastuak ordaintzeko. Beraz, ordezkariak beraien udalek jasandako gastuen berri emateko eskatu zaie, jarduera hauetatik lortutako diruarekin beraiei ordaindu ahal izateko.

Malerrekako Egunaren balorazioaren inguruan, Ernesto Dominguezek testigoaren transmisioaren ekitaldia gaizki atera zela aipatu du. Bere ustez ekitaldiari merezi duen garrantzia eman behar zaio eta horretarako besteak beste Malerrekako udal guztietako ordezkariak egon beharko lukete.

Gloria Aguerrik musika eskolako ikasle batzuek autobusaren txartela ordaindu behar izan zutela eta horren ondorioz Musika Eskolaren Patronatuko Gobernu Batzordean guraso batzuen kexak jaso zituztela aipatu du.

Amets Indak, berriz, Malerrekako Egunean bertan antolakuntza hobe baten beharra ikusten du. Egun horretan bertan bakoitzak izango dituen ardurak ongi definitu behar dira, gonbidatu edota jarduerak zaintzarik gabe gelditu ez daitezen.

## **6. MALERREKAKO ITZULIA PROIEKTUA.**

*Discutido el tema, por unanimidad, SE ACUERDA:*

*1.- Solicitar nuevamente un segundo presupuesto para la instalación de la infraestructura necesaria para la sintonización de EITB en Malerreka.*

*2.- Establecer contacto con responsables de EITB para que puedan facilitar una solución técnica para la sintonización de la cadena.*

*Josune Ibarra informa que después de realizar las indagaciones necesarias han contrastado que Bertizarana recibe señal de televisión de las antenas instaladas en Ezkurra. Los costes de mantenimiento de dicha infraestructura los asume este Ayuntamiento.*

*Patxi Mariezkurrena manifiesta que hablará con el secretario de los Ayuntamientos de Exkurra y Eratsun para que se convoque una reunión para los Ayuntamientos afectados.*

## **5. MALERREKAKO EGUNA 2013**

*El secretario presenta las cuentas del Malerrekako Eguna 2013. En principio los ingresos obtenidos de las actividades para la financiación del Malerrekako Eguna (sorteo, campeonato de mus etc.) serán suficientes para abonar los costes, por lo que emplaza a los representantes a informar de los costes que han asumido para poder proceder al pago desde los fondos derivados de los ingresos mencionados.*

*En cuanto a la valoración del Malerrekako Eguna, Ernesto Dominguez manifiesta que el acto para el traspaso del testigo no salió bien. En su opinión se debe dar al acto la relevancia necesaria, contando para ello con la presencia de los representantes de todos los Ayuntamientos de Malerreka.*

*Gloria Aguerri manifiesta que los algunos de los niños de la escuela de música tuvieron que abonar el ticket del autobús y que padres de la escuela se han quejado al respecto en el seno de la Junta de Gobierno del Patronato de la Escuela de Música del Ayuntamiento de Santesteban.*

*Amets Inda por su parte ve necesaria una mejor organización in situ del Malerrekako Eguna. Se han de delimitar muy bien las responsabilidades sobre el terreno para que ningún invitado ni ninguna actividad queden sin la debida atención.*

## **6. PROYECTO MALERREKAKO ITZULIA.**

Arrosatxo Ibarrek dioenez bakarrik bost Udalek erantzun diote Malerrekako Itzuliaren inguruko idatzari. Bere ustez, Udalek ez badute proiektuarekiko interesik proposamena alde batera utzi behar da. Malerrek turismoa sustatzeko lanaren helburuak eta edukiak zehaztearen inguruko gogoeta prozesu bat hasteko gonbidapen soil bat dela aipatu du.

Hainbat ordezkariak diotenez, beraien udaletan dagoeneko gaia landu da, nahiz eta hartutako erabakiaren ziurtagiria oraindik mankomunitatera ez iritsi. Hau ikusirik ordezkariak Mankomunitateko Asanbladaren hurrengo bilerarako hartutako akordioen ziurtagiriak mankomunitatera bidaltzea adostu dute.

**7. MANKOMUNITATEKO  
LANGILEEN ESKAERA: LAN  
KONTRATUDUN LANGILE  
FINKOEN  
FUNTZIONARIZAZIO  
PROZESUA.**

Idazkariak Mankomunitateko hiru langilek Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bati hasiera emateko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legea dela eta Mankomunitateari egindako eskaeraren berri eman du. Malerrekako Mankomunitateak funtzionarizazio prozesuari hasiera ematea eskatzen dute.

Lehendakariak dioenez bere ustez Mankomunitatea osatzen duten Udalei epe bat eman behar zaie gaia eztabaidatu dezaten. Hurrengo bileran bozkatu beharko da 19/2013 Foru Legean aipaturiko funtzionarizazio prozesuari hasiera ematen zaion edo ez.

Gloria Agerrik dioenez, Nafarroako eta Espainiako Gobernua prestatzen ari diren toki entitate maparen erreforma desberdinak ikusirik, funtzionarizazio prozesuari hasiera ematea erabaki zentzugabea litzateke.

Ernesto Dominguezek dioenez etorkizunean eman litekeen mankomunitate eta beste toki entitateen fusio prozesu baten aurrean Mankomunitate honetako langileak desabantaila posizio baten aurki litezke, funtzionario ez diren bakarrik izanik beraien postuak mantentzeko zailtasunak izango bailituzkete beste funtzionario batzuekin alderatuz.

*Arrosatxo Ibarra informa de que sólo 5 Ayuntamientos han respondido al escrito referente al proyecto Malerrekako Itzulia. En su opinión si los Ayuntamientos no tienen interés se debe dejar de lado la propuesta. Manifiesta que es simplemente una invitación a iniciar un proceso de reflexión sobre los objetivos y los contenidos de la labor de promoción del turismo en Malerreka.*

*Varios de los representantes afirman que pese a que el escrito del acuerdo que han adoptado en su respectivo Ayuntamiento no ha llegado a la Mancomunidad sí que han tratado el tema. Visto los cual, los representantes acuerdan que para la siguiente reunión de la Asamblea de la Mancomunidad los Ayuntamientos miembros remitan los certificados de los acuerdos que hayan tomado.*

**7. A PETICIÓN DE EMPLEADOS DE  
LA MANCOMUNIDAD: PROCESO  
DE FUNCIONARIZACIÓN DE LOS  
CONTRATADOS LABORALES  
FIJOS.**

*El Secretario informa de la petición realizada por tres empleados de la Mancomunidad a cuenta de la Ley Foral 19/2013, de 29 de mayo, para la apertura de un nuevo proceso de funcionarización en las Administraciones Públicas de Navarra. Los empleados solicitan que se de comienzo al proceso de funcionarización en la Mancomunidad de Malerreka.*

*El Presidente de la Mancomunidad afirma que en su opinión se debe de dar un plazo para que en el seno de los Ayuntamientos miembros se delibere respecto a dicho tema. En la siguiente reunión se votará si se abre el proceso de funcionarización señalado en la Ley Foral 19/2013.*

*Gloria Aguerri manifiesta que la apertura del procedimiento podría no ser una decisión prudente ante la incógnita de las reformas del mapa local provenientes del Gobierno de Navarra y el Gobierno de España.*

*Ernesto Dominguez manifiesta que ante una hipotético proceso de union de mancomunidades u otras entidades locales, al ser los de la Mancomunidad de Malerreka los únicos no funcionarios se verían claramente en una posición de desventaja para mantener su puesto de trabajo respecto al resto de trabajadores de otras entidades locales que sí son funcionarios.*

Gaia eztabaidaturik, funtzionarizazio prozesuari hasiera ematea, abuztuaren erdi aldean egitea aurreikusten den Malerrekako Mankomunitatearen hurrengo Asanbladaren ezohiko bilera erabakitzeke utzi da.

## **8. TOKI ENTITATEEN MAPAREN ERREFORMA**

Lehendakariak dioenez Mankomunitatea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin kontaktuan jarri da Nafarroako eta Espainiako Parlamentuetan tramitatzen ari den toki entitateen mapa eta erregimen juridikoaren erreformei buruz informazioa lortzeko. Erakundeko arduradunek diotenez, gai horri buruzko informazioa jasotzeko Federazioaren egoitzara hurbiltzeko aukera dago. Hala nola, iraila aldera Nafarroako zonalde desberdinetan bilera informatiboak egitea aurreikusia dutela aipatu dute.

Bertaratutako ordezkariak Federazioaren egoitzan toki entitateen maparen inguruko bilera/hitzaldia eskatzea adostu dute.

Patxi Mariezkurrena eta Amets Indak aipatzen duenez Federazioan hainbat bilera egon dira toki entitateen maparen erreformen aurrean federazioaren jarrera definitzeko. Malerreka ingurutik, ordea, oso jende gutxi bertaratu zen.

Josune Ibarak dioenez Mankomunitatea Federazioan sartzeko aukera dago. Modu honetan zonalde guztiko interesak ordezkatuak egongo liriateke eta gainera entitate honen osoko bilkuran boto portzentaje handiago bat lortuko litzateke.

Mankomunitateko kudeaketa organoak Mankomunitatea Federazioan sartzearen inguruko informazioa lortzeaz arduratuko dira.

## **9. LEHENDAKARIAREN EBAZPENAK.**

2013ko 16/2013 ebazpenetik 2013ko 25/2013ra doazen Lehendakariaren ebazpenen berri eman da.

## **10. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ernesto Dominguezek Nafarroako Gobernuko Kontsumo Departamentuak Malerrekan kontsumitzaileentzako informazio bulego bat jartzearen inguruko

*Discutido el tema, se pospone la apertura del proceso de funcionarización a la siguiente sesión extraordinaria de la Asamblea de la Mancomunidad de Malerreka que se estima se realizará a mediados de agosto.*

## **8. REFORMAS DEL MAPA LOCAL.**

*El Presidente de la Mancomunidad afirma que la Mancomunidad se ha puesto en contacto con la Federación Navarra de Municipios y Concejos para informarse de las distintas reformas del régimen local que se están tramitando en el Parlamento de Navarra y en el Congreso de Los Diputados. Responsables de la Federación han informado que existe la posibilidad de acudir a la sede de la Federación para recibir toda la información que se requiera respecto al tema. Asimismo han afirmado que tienen la intención de realizar hacia septiembre reuniones informativas por las distintas comarcas de Navarra.*

*Los representantes acuerdan solicitar a la Federación una reunión/charla en su sede sobre los distintos proyectos de reformas del régimen local.*

*Patxi Mariezkurrena y Amets Inda informan de que en el seno de la Federación se han realizado distintas reuniones para definir su posición respecto a las diferentes propuestas de reforma del régimen local y que desde la zona de Malerreka acudieron pocos representantes.*

*Josune Ibarra afirma que existe la posibilidad de que la Mancomunidad de Malerreka se adhiera a la Federación. De este modo estarían representados los intereses de toda la comarca además de un mayor porcentaje de votos en la asamblea de dicha entidad.*

*Los órganos de gestión de la Mancomunidad se encargarán de obtener la información necesaria sobre la posibilidad de adhesión de la Mancomunidad a la Federación.*

## **9. RESOLUCIONES DEL PRESIDENTE.**

*Se da cuenta de las resoluciones 16/2013 a 25/2013 del Presidente de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka.*

## **10. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

*Ernesto Domínguez pregunta si se ha remitido al Departamento de Consumo del Gobierno de*



lankidetzan hitzarmena hausteagatik  
erreklamazioa bidali ote den galdetu du.

Idazkariak idatzia oraindik ez dela bidali  
erantzun dio.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:30ak izanik,  
bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta  
erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin  
dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

LEHENDAKARIAK,  
Alberto San Miguel Mindeguia jn.

*Navarra escrito en reclamación de la ruptura del  
convenio de colaboración suscrito entre las dos  
entidades para la implantación de una oficina de  
información al consumidor.*

*El secretario responde que el escrito todavía no se  
ha remitido.*

*Sin más asuntos que tratar, siendo las 21:30 horas  
de la noche, el presidente da por finalizada la  
sesión, de la que se levanta la presente acta de la  
que yo, como Secretario, doy fe.*

IDAZKARIAK,  
Jon Etxague Goia jn.